

## MAILEGU BERRIEN IDAZKERA

1984-X-25

Koldo Mitxelena

Hona zenbait ohar, zuzen nahiz oker, eskatu zitzaidanari narraiola.

Sarrera-hitz batzu, aurrenik. Ez dut uste gai hauetan hizkuntza batek lege bakar-zorrotzak izan behar dituenik. Hitz kontuan beti gertatzen denez, bana-banako arazoak maizegi sortu ohi dira (ez gramatikarenak ez Akademienak berez ez direnak). Kasuistika maizegi agertzen da horrelakoetan: harako ingelesez *casuistry* deitzen dena, erdi gaitzizenez. Eta horrelakoetan sartuz gero, Pascalek argiro erakutsi zuenez, erraz da ondorioz dorpentetara heltzea. Ezin hil dezakegu gizonik, behar bezain funtsezko arrazoirik gabe, noski. Eta arrazoi sendoen bila abiatzen garenean, aurki aurkituko dugu ezkutu bat, lodia bada bederen, aski eta gehiegizko arrazoia izan daitekeena.

Bestea, mailegu gaitan, erabaki beharra zer den horrela dei daitekeen hitza. Mailegua hartzekotan ari bagara, izan ere, ez da mailegu, sartua eta hartua izan behar bailuke horretarako. Nonnahi topa badezakegu, aspaldixko onartua dugula, mailegu izana da, baina ez mailegu, etxeko baizik, sartua eta hartua, geuretua, dugulako.

Nolanahi ere den, bistan da hemen, grafiaren aldetik, ez dela inongo hizkuntzan mailegu hitzekiko *egoerarik*, erabat etxekotu ez ditugun bitartean, hitz horiekiko *bilakaera* nahiz *bilakabidea* baizik: sarritan, hemendik hasi (etorkizko hizkuntzaren itxuratik esan nahi dut) eta honeraino, horreraino edo haraino aldatzen dira aurpegiz hartzaileen mintzaeraren arabera. *Cognac* bezala sartu zena *coñá* bide da *El País*-koen gaztelanian (ausartzen badira, behinik-behin) eta *whisky*, beste batzuek dotoreago *whiskey* idazten zutena, *güisqui* omen da zenbaitentzat gaztelaniaz. Halaz guztiz, guztiek, nahiz lehengoek baino guttiago izan, *kirsch* edo *kummel* idazten dute. Horren arabera, *Fiestas euscaras* eta *corricolari* behar gemituzke aldameneko erdaraz.

Zilegi behar luke izan, beraz, euskaraz zein erdaraz, jatorrizko grafia gordetzea kanpotikakoa (eta berria) delarik iturburuari diogun zorra aitortzeko, besterik ez bada ere. Egia da ez dabiltzala bat puntu horretan hizkuntza guztiak, batzuek zabalago baitute eskua eta besteek murriztago. Ingelesez lasai baino lasaiago idatziko da, esate baterako, *weltanschauung* edo *eigen* (*value*), gaztelania eta frantsesez baino.

Har ditzagun *v* eta are gehiago *w* letrak. Bistan da, hitz batek euskaraz ezaugarri horiek daramatzala, oraindik, 'erdal kutsua'-ren agergarri, nahi eta ez. Noraino alda ditzakegu? Joera, dudarik gabe, *b*-ra daramate eta *b* bihurtuko dira segur aski azkenik, gehienbat behintzat, hizkuntza honetan irauten badute, eta oraingoz aztiatzen ez den iraultzaren bat sortzen eta burutzen ez badute euskaldunek. Nik, adibidez, *bokal* idazten dut, hiztegiari amore emanaz (baita ere neure barrengo ixuriari) eta ez 'hiztegiileen' *bokale*-ri. Baina oraindik, eta barka edari izenak maizegi agertzen badira, *vodka* jarriko dut beti paperean eta, nonbaiteko ibilaldiez ari bagara, *versta*.

Hemen eta beti, izen propioak salbu, hobe baita hauek (geuretuak ez dituguino) dauden daudenean uztea. Bada, halaz guztiz, istilurik. Letraldatu behar denean, nola egin? Har ditzagun, esaterako, URSS-ekoak. Eta okerra-  
go genbiltzake Txinakoekin, han ez baita inolazko 'letrarik'.

Berex ukituko dut *y*-ren kontua. Bi arrazoigatik: 1. geurok ere erabili (eta, esanak esan, erabiltzen?) dugulako, eta 2. erdaretatik gauzak ez datozkigulako beti batera ez bateratsu. Gaztelaniaz, *conjunción* esaten da, baina *disyunción* (*disjunto*, ordea): latinetikako izen propioetan *Yugurta* esan ohi da, Marinerek ez ezik (*Jugurta* dio honek), badira *Seyano* eta *Sejano*-ak eta abar. Nik, neure makurrez, *i* erabiliko nuke maizago hitz hasieran, dudakoe-  
tan, *iatagan*, etc., eta ez zenbait izenetan bakarrik (*Iapeto*, etc.).

Nik *h*, bakarka, bere hartan jasoko nuke, arrazoi berezirik ez baldin bada. Gure arteko etimologiberatasun horren aldamenean, edo hobeki aurrean, bereizkuntzaren alde jokatzek balioko luke, agian: *istoria* eta *historia*, *armonia* eta *harmonia*, eta abar.

Geure legeak hartu genituen, edo jendeak hartuak izan dira, eta hobe genuke, premiarik gabe, ez aldatu. Hitza gureganatzean, zenbait gauza kentzen saiatzen gara (edota saiatu izan gara), beste zenbait gehitzen, beste batzu, azkenik, aldatzen. Horrelakoak gertatzea hitza sartua eta hartua dagoelako seinalea da. Hobe, beraz, ohiturazko jokabide horiek gorde, salbuespenak salbu. Salbuespenak, jakinaren gainean egin direnean, badute edo izan dezakete esan-nahia.

Nik, beraz, bestek besterik nahi duelarik behar bada, *tz*, *ts*, *tx* sartuko nituzke, ohiturari jarraio, testu-inguru ezagun horietan, *n* idatziko nuke bestetan *m*-ren ordez, *p*, etc., + *h*, eta kontsonante bikoitzak bakunduko (*p* nahiz *f*, etc., *k*, etc., idatziaz) HITZAK EUSKALDUNDU AHALA. Kanpotikakotzat agertzea nahiago badugu, berriz, dauden daudenean geldi bitez.

Kontsonante multzoak berez soilduko lirake, euskaltasunak (gorde ez duen) lehengo indarra gorde balu. Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta atseginagoak: cf. *primu* (eta hitz hasieran agertzen dena hitz barruan agertzen da: ez alderantziz nahi eta ez), *atriaka*, *dulabre*, *duple* (—*tl*— bakan azalduko da, ez baitzuen latinak berezkorik, are guttiago

—*dl*—). Zenbait hitz ikasik (*atleta*, etc.) ez dio inori belarriko nahiz begiko minik emango.

Besteetan (hots, —*pt*— eta *pt*—, ... —*ps*— eta *ps*—, ... —*sz*—, —*kn*—, —*mn*—) neure adineko jendea soiltzera makurtuko litzateke eta antzinako kemen horrek iraungo balu, soilduko lirateke. Errazetik, *sz* bihur daiteke z. Kontsonanteak bi baino gehiago direnean, murrizteko hobe. Erabaki genuenez, —*xt*—, adibidez, —*st*— bihurtu behar genuke: bestela eran hiru kontsonanteren ordeztan (—*kst*—) bi uzten ditugu, bigarrena txistukaria denean. Horren arabera, bada, badirudi *ast*—, *sust*— eta horien irudikoetara jo behar dugula.

Txistukariak aipatu ditudanez gero, goiko kasuetan edonongo (antzina edonongo) legeari makur gakizkion: *sozialista*, eta abar. Nik ez nuke horrela koetan, zinetan eta benetan ari naizelarik, bustidurarik ametituko. Ez dut, berriz, uste, *ixuri*, *ixildu*, *itxusi* eta abar idazteak, noizean behin bederen, kalterik ekar dezakeenik.

Aditzera eman ditudanak isuria edo gogoia baizik ez dute azaltzen: ez nituzke, neure esku banitu ere, baldintza guztiak erabat eta segituan beteko. Gutti batzuei, ordea, premiazko edo behintzat probetxuzko deriztet. Eta bukatzeko —*mentu* / —*mendu* eta antzekoak, erregela horiek orain mehartuak ditugunez, hiztegi kontu dira, ez fonologia kontu. Banaka aztertzeak, bada.